

**AKTA, ARRETA SOZIOSANITARIOKO EUSKAL KONTSEILUAREN 2015EKO
OTSAILAREN 2KOA****EGUNA:** 2015EKO OTSAILAREN 2A**LEKUA:** EUSKO JAURLARITZAREN LAKUAKO EGOITZA (2. aretoa)**HASIERA-ORDUA:** 12:00**AMAIERA-ORDUA:** 14:05**PARTE-HARTZAILEAK:****LEHENDAKARIA:** Jon Darpón Sierra jauna, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua**KIDEAK:**Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako ordezkariak:

- Juan María Aburto Rique jauna, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua
- Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jauna, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako sailburuordea
- Sergio Murillo Corzo jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasunaren Arretarako zuzendari nagusia
- Marta Alaña Alonso andrea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako foru diputatua
- Paloma Aranceta Arilla andrea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria
- Txelo Pérez Martínez andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako zuzendari nagusia
- Mariano Gómez Fernández jauna, Bilboko Udaleko zinegotzia, EUDELen ordezkari gisa

Euskal Osasun Sistemako ordezkariak:

- Guillermo Viñegra García jauna, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuordea
- Jon Joseba Etxeberria Cruz jauna, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia
- Antonio Arraiza Armendariz jauna, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Osasun Arretako zuzendaria
- Jose Antonio de la Rica Giménez jauna, koordinatzaile soziosanitarioa



Bilerako beste parte-hartzaile batzuk:

- Lourdes Zurbanobeaskoetxea Laraudogoitia andrea, esparru soziosanitarioko aholkularia
- Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria

IDAZKARIA: María Heras Burzaco andrea, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko aholkulari juridikoa

GAI-ZERRENDA

- 1- Aurreko bilerako akta onartzea (2014/07/14).
- 2- Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren dekretu berriaren aurrerapenak.
- 3- Ildo estrategikoen sei hileko aurrerapenak.
- 4- Kontseiluko lehendakariaren aldaketa.
- 5- Galderak eta eskaerak.

Aipatutako pertsonak bertan direla, bilera hasi da.

1- Aurreko bilerako akta onartzea (2014/07/14).

Aldaketarik proposatu ez denez, onartu egin da.

2- Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren dekretu berriaren aurrerapenak.

Jose Antonio De la Rica jaunak, labur gogorarazi du zer arrazoik piztu zuen dekretu berri bat idazteko asmoa; besteak beste, lurralde historikoetako lurralde kontseiluei garrantzi handiagoa ematea eta ASSEKn bi koordinatzaile soziosanitariori (sail bakoitzeko bat) eta lurraldeetako koordinatzaile soziosanitarioei lekua egitea. Horrez gain, koordinatzaile soziosanitario baten esku utzi nahi da Kontseiluko Idazkaritza: orain arte, unean-unean burutza hartzen zuen Saileko teknikari batek hartu du ardura hori.

Arau berria prestatzen egin diren aurrerapenei buruz, De la Rica jaunak adierazi du idatzita daudela justifikazio-memoria eta memoria ekonomikoa eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren aholkularitza juridikoa arduratuko dela proiektu arauemailearen izapidetze juridikoaz. Aurki, dekretu-proiektuaren hasiera-agindua eta aurretiko onarpena prest egongo direla espero da. Osasun sailburuak erantsi du bi-biak batera sinatuko dituztela bai berak bai Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak.

Txelo Pérez andreak eskatu du arau-proiektuaren zirriborroa bidaltzeko, hura gertu izan bezain laster.



3- Ildo estrategikoen sei hileko aurrerapenak.

Gai-zerrendako puntu hori Jose Antonio De la Rica jaunak eta Lourdes Zurbanobeaskoetxea andreak aurkeztu dute. Azalpena erraz jarraitzeko, Power Point aurkezpen bat erabili dute. Akta honetan jaso da eranskin gisa. Halaber, eranskinetan txertatu dira bilerako parte-hartzaileei banatutako dokumentuak eta bilera prestatzeko erabili direnak ere.

Ildo estrategiko hauen aurrerapenak jorratu dira bileran:

- Zorro Sozio-sanitarioa: Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean, Sergio Murillo jaunak adierazi du komeni dela gai horri buruz aurretiko eztabaida bat egitea zorroa nola finantzatu behar den, halako moldez non araua pragmatikoagoa izango den eta argi geratuko den esku-hartuko duen erakundeetako bakoitzaren ardura. Marta Alaña andreak agerian utzi ditu arreta goiztiarraren eremuan sortu diren arazoak, eta iruditzen zaio ausarkeria dela gai horri ekitea zer baliabide dagoen kontuan hartu gabe; itxaropen handiak sortzen baititu, gero, betetzen ez direnean, frustrazioa eragiten dutenak. Dena dela, Alaña andreak adierazi nahi izan du Arabako Foru Aldundiak ez duela onartuko gai honi buruzko araurik, guztiz argi zehazten ez bada erakunde bakoitzari zer ardura dagokion eta zorroa nola finantzatuko den. Kontseiluko gainerako kideak ados agertu dira ikuspuntu horrekin.
 - Osabide egoitzetan.
 - Elkarreragintasan-tresna: Kontseiluko kide guztiei RAICaren hedapenari buruzko azken txostena bidaltzea adostu da. Hiru asteren buruan alegaziorik edo aurkakotasunik aurkezten ez bada, txostena onartutzat joko da.
 - Lehen mailako arreta sozio-sanitarioko taldeen garapena.
 - Etika Aholku Batzordea.
 - Arrisku-faktoreak hautemateko tresna eta adineko pertsonenganako tratu txarren adierazleak. Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburu Aburto jaunak proposatu du Kontseilu honek hitzarmen bat egitea hautemateko tresna ezartzeko. Adostasunetik sortua izanik, erakunde guztiek joko dute propiotzat, eta era homogeenan ezarriko dute beren esparruetan. Proposamena aho batez onartu dute Kontseiluko kide guztiek.
Iñigo Pombo jaunak, berriz, txosten bat ekarri du, tresnaren pilotajerako eta balidaziorako erabili den prozeduraren berri ematen duena.
 - Lurralde Plan Operatiboak.
 - NFP proiektua ("Nurse-Family Partnership"), "Esku-hartze goiztiarrerako eta guraso-laguntzako programa, haurra jaio aurrerako eta haurtzarorako, familia zaurgarrietako haurren aukerak hobetzeko". De la Rica jaunak proiektuaren oinarritzko ildoak azaldu ditu eta Mariano Gómez jaunak hari buruzko dokumentazio gehiago ekarri du. EUDELeke ordezkariak azaldu du gaia Kontseilura ekarri dutela proiektu hori gogoetarako tresna oso baliagarria iruditzen zaielako eta gai anbiziotsua bat lantzen duelako, emaitza oso onak dituen.
- Osasun sailburuorde Guillermo Viñegra jaunak, berriz, proiektuarekiko interesean bat egin badu ere, uste du gehiago zehaztu eta aztertu behar dela. Egokia iruditzen zaio Kontseilu honen hurrengo bileran gaia berriro jorratzea.
- Zainketa Aringarrien Planaren zirriborroa.
 - Arreta Goiztiarreko Fredua.

4- Kontseiluko lehendakariaren aldaketa.

Osasun sailburuak hartu du hitza eta gogorarazi du, Kontseiluko kide guztiek ondo dakiten eran, ASSEKren lehendakaritza txandakakoa dela eta amaitu dela Osasun Saila betebeharrorretan aritzeko urtebeteko denboraldia. Beraz, une honetatik aurrera, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari dagokio horretan aritzea.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak abagunea baliatu du bilerara bertaratutakoei adierazteko, ziur asko, ez dela ASSEKren hurrengo bileran egongo eta guztiei haien parte-hartzea eskertzeko. Bereziki eskertu du Jose Antonio De la Rica jaunaren eta Lourdes Zurbanobeaskoetxea andrearen lana, haien konpromisorik gabe, ezinezkoa zatekeen Kontseilua sustatu den eran sustatzea. Aburto jaunak esan du legealdia oso atsegingarria izan zaiola eta aurrerapen garrantzitsuztat azpimarratu ditu historia klinikoa errealitate bilakatu izana eta zorro soziosanitarioaren dekretua aurrera eramateko konpromisoa hartu izana.

Murillo jaunak berriaz eskertu du, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean, ASSEK honek Enplegu eta Gizarte Politiketako Saitetik jaso duen sustapena. Kontseiluko beste kideek ere bat egin dute esker-emate horrekin.

5.- Galderak eta eskaerak

Paloma Aranceta andreak, Arabako Foru Aldundiaren izenean, aktan hiru gai hauek jasota gera daitezen eskatu du:

- Eusko Jaurlaritzak ez dio baiezkua eman Arreta Soziosanitarioko Lankidetzaren Hitzarmenean eskatutako plaza-kopuruen igoerari.
- Aipatutako hitzarmenaren testuinguruan, finantzaketari dagokionez, ez da irizpide bera erabiltzen ari lurralde historiko guztietan. Arabako Foru Aldundiak gainerako erakundeei ematen zaien tratua bera eskatu du, bai eta dagokion berrikusketa egiteko ere, ez baitira prezioak eguneratu.
- Komeni da jakitea nola gauzatuko den hitzarmen soziosanitarioaren barruko zentroekin lotutako finantzaketaren garapena eta hobekuntza, eta aurrera egin behar da hiru lurraldeetan aplikatzen diren baldintzen estandarizazio eta normalizazioan, zorroaren dekretuan jasotzen den eran.

Osasun sailburuorde Viñegra jaunak lehen gaiari erantzun dio, Arabako Foru Aldundiarekin adostuta zegoela plaza soziosanitarioen igoerari 2016. urtean helduko zitzaioala.

Azkenik, Jose Antonio De la Rica jaunak dio dokumentuen biltegi bat behar dela, Kontseiluan ordezkaturako administrazioen ardurapeko gai soziosanitarioentzat. ASSEKren domeinu bat sortzeko aukera azaldu da: bateratze-egitura bat emango luke eta aipatutako helbururako balioko luke. Ekonomikoki ez da gastu esanguratsua, baina, praktikan, zaila izaten ari da egitea. Viñegra jaunak esan du Lehendakaritzari azalpenak eskatu zaizkiola, iruditzen baitaio eduki horiek ez luketela soilik Jaurlaritzarena den domeinu batean egon behar, eta aurrekontu bat eskatu zaio konpainia bati WEB orri bat sortzeko: han jarriko lirateke baliabide soziosanitarioen mapa eta Kontseiluaren deialdiak, aktak, hitzarmenak.



Horrela, gai-zerrendako puntu guztiak landuta, bilera bukatutzat jo da goian adierazitako lekuan eta orduan.

IDAZKARIA

María Heras Burzaco andrea

LEHENDAKARIA

Jon Darpón Sierra jauna

Eranskinetan atxiki dira gai-zerrendako 3. puntuarekin (Ildo estrategikoen sei hileko aurrerapenak) zerikusia daukaten pdf eta ppt dokumentuak.

- ✓ Ildo estrategikoen aurrerapenak-Aurkezpena (ppt)
- ✓ Ildo estrategikoen aurrerapenak-Zerbitzu soziosanitarioen zorroaren edukiak 9-12-14 (pdf)
- ✓ RAI-CA txostena (2014ko iraileko txostena) (pdf)
- ✓ RAI-CA txostenaren eranskinak (pdf)
- ✓ Ildo estrategikoen aurrerapenak-Bizi-kalitatea eta gizarte-inklusioa (pdf)
- ✓ Ildo estrategikoen aurrerapenak-Lurralde Plan Operatiboan taulak (Araba) 2015 (pdf)
- ✓ Ildo estrategikoen aurrerapenak-Lurralde Plan Operatiboan taulak (Gipuzkoa) 2015
- ✓ Ildo estrategikoen aurrerapenak-Nurse-Family Partnership programa (pdf)